

Demokraziaren berrikuntza: Zein izan daiteke gure ekarpena? Nazioarteko begirada eta kontrastea



Demokraziak gero eta mehatxu gehiago jasotzen dituen unean, demokraziaren aldeko apustua egiteko gogo sendoa ere badago eta kultura demokratikoan sakontzekoa.

Eka. 25 2025

Kod. G06-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 25 2025

Kokalekua

Arantzazulab, Gandiaga Topagunea

Hizkuntzak

Euskara Ingelesa

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Mundu osoko demokrazia liberalak zalantzan jartzen dituen olatu autoritarioaren goraldia ikusten ari gara egun. Halaber, demokraziaren krisiaz hitz egiten da, hainbat modutan islatzen dena mendebaldeko herrialdeetan: demokraziaren oinarritzko baliabideekiko mesfidantza, nahigabe politikoa, herritarren egonezina eta desatxikimendua, jarrera totalitarioak eta indibidualisten goraldia, eta egungo baliabide eta egiturekin gizarte erronkei aurre egiteko erakunde publikoen gaitasun falta.

Testuinguru honetan, demokraziak gero eta mehatxu gehiago jasotzen dituen unean, demokraziaren aldeko apustua egiteko gogo sendoa ere badago eta kultura demokratikoan sakontzekoa. Batetik, gure herriko zenbait erakundetan demokrazian sakontzeko egiten den apustua argia da (eta garaiotan ezohikoa), eta aipagarriak dira, askotariko gizarte eragileen eskutik, berrikuntza politikoa eta gobernatzeko era berriak sustatzeko abian jarri diren estrategiak, bai gobernuan, bai alderdietan edota baita herri erakundetan ere. Euskal Herriko testuinguruak, gure tradizioak, erakundeen lidergoak eta apustuak, abian diren ikerketa lanek, gizarte eragile eta berrikuntza talde ezberdinek sustatutako egitasmoek, edota Arantzazulab bezalako berrikuntza zentroek, besteak beste, arreta pizten dute nazioartean. Bestalde, asko dira munduan demokrazian sakontzeko ikertzen eta erantzun berritzaileak emateko lanean ari diren pertsonak, taldeak, erakundeak, eta gobernu aurrerakoia.

Horiek guztiak erakarri nahi ditu UPV/EHUKo Uda Ikastaro honek, gure balio sistematik demokraziaren berrikuntzako eztabaida globaletan egin dezakegun ekarpena azaleratzeko, eta ekarpen hori balioan jartzeko. Horretarako, gainera, nazioarteko punta-puntako adituak izango dira hizlari eta solaskide, nazioarteko begirada honetatik alor honetan egin nahi den ekarpenaren kontrastea egiteko.

Finean, demokraziaren berrikuntzan eta eraldaketan jauzi kualitatiboak emateko gako batzuk eskaintzeko baliatu nahi da ikastaro hau.

Helburuak

Kultura demokratikoan eta komunitatearen eraikuntzan sakontzeko tokiko erakundeen zein eragileen estrategiak eta egitasmoak ezagutzea.

Demokraziaren berrikuntzako eztabaida globalei guretik eta Euskal Herriko balio sistematik egin diezaiekegun ekarpenean sakontzea, eta tokiko zein nazioarteko hainbat aditurekin kontrastatzea.

Demokrazian sakontzeko nazioarteko adituen ekarpenak jasotzea.

Kultura demokratikoan sakontzeko beharra euskal gizartean aldarrikatzea, gaia eztabaida publikora eramatea eta erakunde sistema elkarrizketa hauetara erakartzea.

Antolakuntza



Lankidetzak



Programa

2025-06-25

09:00 - 09:30	Erregistroa
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Naiara Goia Imaz Arantzazulab - Zuzendari nagusia Ione Ardaiz Osacar Arantzazulab - Proiektuen arduraduna
09:45 - 10:40	“Open democracy: politics with and for the people (Behin-behineko izenburua)” Hélène Landemore University of Yale, AEB - Political science professor and researcher
10:40 - 11:35	“Challenges of Democratic Design” Michael Saward University of Warwick, United Kingdom - Professor and researcher in Politics and International Studies
11:35 - 12:00	Atsedena eta kafea
12:00 - 12:45	Mahai ingurua: “Tokiko erakundeen estrategiak eta esperientziak kultura demokratikoan sakontzeko eta komunitate-zentzua indartzeko” Xabier Otxandiano Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, Gobernantza - Administrazio Digital eta Autogobernu Saila; Erakunde Harremanetarako Sailburuordea Yosu Arraiz Aramburu Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa - Estrategia zuzendaria María José Aranguren Querejeta Orkestra - Zuzendari nagusia Naiara Goia Imaz Arantzazulab - Zuzendari nagusia Asier Aranbarri Urzelai Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco - Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria
12:45 - 13:30	Mahai ingurua: “Demokraziaren aldaerak, agertokiak eta aukerak XXI. Mendean. Arantzazulab-k sustatuko Ikerketako eta Esperimentazioko egitasmoen arduradunen arteko elkarriketa” Ione Ardaiz Osacar Arantzazulab - Proiektuen arduraduna (Moderatzailea) Andoni Eizagirre Eizagirre Arantxa Mendiharat Deliberativa Julen Mendoza Perez Kogarri Maria Ajuria Hernandez Farapi Beatriz Belmonte Better Public Services
13:30 - 14:00	Cierre
14:00 - 15:00	Bazkaria Gandiaga Topaguneko Hallean (partaideek elkarrekin hitz egiteko cocktail eran)

Zuzendaritza



Naiara Goia Imaz

Arantzazulab, Zuzendari Nagusia

Naiara Goia Imaz Arantzazulab-eko Zuzendari Nagusia da gaur egun. Arantzazulab demokraziaren berrikuntzarako laborategia da, eta lankidetzazko gobernantzako erreferentziazko zentroa Euskadin; laborategia diseinatzeko, abian jartzeko eta garatzeko ardura du, 2020ko urritik. Berrikuntzan aditua, 20 urteko esperientzia dauka gurean eta nazioarte mailan proiektu publiko-pribatu estrategiko konplexuen zuzendaritzan. Arantzazulab-en hasi aurretik, MONDRAGON Korporazioan lan egin zuen hainbat urtez, berrikuntza teknologiko eta sozialeko estrategiak bultzatzen, kooperatiba-sarean enpresen eraldaketara bideratutako hainbat ekimen gidatu zituelarik. Demokraziaren berrikuntza, sareko lana sustatzea eta gobernantzaren eraldaketa sistemikorako estrategien eraikuntza dira bere interesetako batzuk eta bere lanaren oinarria. Unibertsitate ezberdinekin kolaboratzen du baita ere, hizlari eta irakasle gisa. Naiarak Telekomunikazio Ingeniaritzan goi-mailako titulua du (UPV/EHU - ENST Bretagne) eta enpresen zuzendaritza eta kudeaketako MBA baten jabe da. Modu osagarrian, formakuntza ezberdinak jaso ditu, Gobernantza ireki eta kolaboratiboan (UNED), Lidergoan, Komunikazio publikoan, edo Berrikuntzan, batzuk aipatzearren.



Ione Ardaiz Osacar

Arantzazulab

Irakasleak



Maria Ajuria Hernandez

Farapi koop. elkarteak



Asier Aranbarri Urzelai

Eusko Jaurlaritza

Trantsizio Sozial eta 2030 Agendako Idazkaritza Nagusiko Aholkularia. Lehendakaritza-Eusko Jaurlaritza (2021-2022). Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko Aholkularia. Lehendakaritza-Eusko Jaurlaritza (2017-2021). Kanpo Harremanetako irakaslea. Deustoko Unibertsitatea (2016-gaur arte). Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Aholkularia Eusko Jaurlaritza (2012-2016). Azkoitiko Alkatea (2003-2011). EAJ-PNVren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan (2003-2011).



María José Aranguren Querejeta

Orkestra, Instituto Vasco de Competitividad

Mari Jose Aranguren Orkestrako zuzendari nagusia eta Ekonomia Katedraduna da Deustuko Unibertsitatean. Lehiakortasunean eta lurralde estrategian, klusterretan eta sareetan, eta politiken analisisan eta ebaluazioan aditua da. Gai horien inguruan liburu eta artikulu ugari argitaratu ditu, nazio eta nazioarteko eragin handiko aldizkari espezializatuetan. Esperientzia zabala du nazio eta nazioarteko proiektuak gidatzen, aipatutako ikerketa eremuetan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko eragileekin eskuz esku egin du lan. 2016ko abenduan Harvardeko Estrategia eta Lehiakortasunerako Institutuak bere ibilbidea eta lurralde lehiakortasunean edukitako ekarpena aitortu du, bere izena 'Hall of Fame' aretoan sartuz. 2014tik 2016ra Europako Batzordeko aholku kontseiluko kide izan da Horizon 2020 programan, ondoko bi erronketan: Societal Challenge 6 'Europe in a changing world - Inclusive, Innovative and Reflective Societies' eta "Spreading Excellence and Widening Participation".



Ione Ardaiz Osacar

Arantzazulab



Yosu Arraiz Aramburu

Gipuzkoako Foru Aldundia



Beatriz Belmonte



Andoni Eizagirre Eizagirre

Mondragon Unibertsitatea, Irakasle Titularra

Mondragon Unibertsitateko Irakasle Titularra. Filosofian Doktorea. Berriki koordinatu du “Burujabetzaren bidetik: bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea” (Oreki, 2021) liburua, eta “Eraldaketa globalari neurrian hartzen: euskal gizartea aro ekonomiko berrian” (MU, 2019) liburuaren egilea ere bada, besteak beste. Gaur egunean “Herrigintzaren Berrikuntzan” graduondokoaren zuzendaria da. Bere argitalpen batzuk hemen daude ikusgai:
<https://www.researchgate.net/profile/Andoni-Eizagirre>



Naiara Goia Imaz

Arantzazulab, Zuzendari Nagusia

Naiara Goia Imaz Arantzazulab-eko Zuzendari Nagusia da gaur egun. Arantzazulab demokraziaren berrikuntzarako laborategia da, eta lankidetzazko gobernantzako erreferentziazko zentroa Euskadin; laborategia diseinatzeko, abian jartzeko eta garatzeko ardura du, 2020ko urritik. Berrikuntzan aditua, 20 urteko esperientzia dauka gurean eta nazioarte mailan proiektu publiko-pribatu estrategiko konplexuen zuzendaritzan. Arantzazulab-en hasi aurretik, MONDRAGON Korporazioan lan egin zuen hainbat urtez, berrikuntza teknologiko eta sozialeko estrategiak bultzatzen, kooperatiba-sarean enpresen eraldaketara bideratutako hainbat ekimen gidatu zituelarik. Demokraziaren berrikuntza, sareko lana sustatzea eta gobernantzaren eraldaketa sistemikorako estrategien eraikuntza dira bere interesetako batzuk eta bere lanaren oinarria. Unibertsitate ezberdinekin kolaboratzen du baita ere, hizlari eta irakasle gisa. Naiarak Telekomunikazio Ingeniaritzan goi-mailako titulua du (UPV/EHU - ENST Bretagne) eta enpresen zuzendaritza eta kudeaketako MBA baten jabe da. Modu osagarrian, formakuntza ezberdinak jaso ditu, Gobernantza ireki eta kolaboratiboan (UNED), Lidergoan, Komunikazio publikoan, edo Berrikuntzan, batzuk aipatzearren.



Hélène Landemore



Arantxa Mendiharat

Deliberativa

Deliberativa elkartearen sortzaileetako bat da, eta zozketa zibikoaren bidez aukeratutako herritarrak inplikatzeko dituzten deliberazio-prozesuak diseinatzeko, martxan jartzen eta ikertzen ditu. La democracia es posible. Sorteo cívico y deliberación para rescatar el poder de la ciudadanía liburua egilekidea da Ernesto Ganuzarekin batera (2020, Consonni argitaletxea). Web gune hauen ko-sortzailea da: Más allá del voto, Democracia por sorteo eta mecambio.net. FIDE (Federation for Innovation Democracy - Europe), Democracy R&D eta ELGAko Innovative Citizen Participation Network sareetako kide da. Aurreko bizitza batean, arteak eta beste ekoizpen-eremu batzuk gurutzatzeari ekin zion. Oraindik ere gertutik jarraitzen du Idoia Zabaleta eta Ixiar Rozasekin Zirriborroak eta gero sortu zuen proiektua.

Politika Zientzietan lizentziaduna Bordeleko (Frantzia) Ikasketa Politikoen Institutuan. Edinburgoko Heriot-Watt Unibertsitateko Arteen Kudeaketako Master baten titularra. Senperen sortua, Bilbon bizi da.



Julen Mendoza Perez



Xabier Otxandiano



Michael Saward

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-25 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-25 ARTE
Matrikula doan	0 EUR

Kokalekua

Arantzazulab, Gandiaga Topagunea

Arantzazu Auz., 1, 20567 Oñati

Gipuzkoa